



ALDEZ AURREKO KONTSULTA FORU DEKRETU PROIEKTUAZ, EGOERA METEOROLOGIKO JAKIN BATZUEK KALTE EGINDAKO NEKAZARIEI PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ORDAINKETA ZATIKATUA (2017KO BIGARREN SEIHILEKOA) KENTZEKOAZ.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako aurreproiektua/proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) hura onartzeko premia eta aukera,
- c) arauaren helburuak,
- d) egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak).

Aurrekoa betez, ondoko kontsulta hau planteatzen da, beren iritzia eskatzeko etorkizuneko xedapen honen eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei: egoera meteorologiko jakin batzuek kalte egindako nekazariei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatua (2017ko bigarren seihilekoa) kentzeko arau esparrua ezarri behar duena.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2017ko irailaren 15era arte, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK	<p>PFEZren arautegiak xedatutakoaren arabera, nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantza jarduerak egiten dituzten zergadunek, zatikako ordainketen aurreko urtean ez, horren aurrekoan beren jarduera ekonomikoen etekinak nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantza jardueretatik bakarrik atera badituzte, sei hilean behin ordaindu behar dute zatikako ordainketen aurreko urtean ez, horren aurrekoan jardueren bidez lortutako etekin garbien ehuneko 6.</p>
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	<p>Zenbait sorotan garrantzizko kalteak egin zituen 2017ko apirilean izandako eguraldi egoerak.</p> <p>Ordainketa zatikatuaren kalkuluak ez du egoera hori kontuan hartzen.</p> <p>Kendu egiten da 2017ko bigarren ordainketa zatikatua, neurri hori behar dutela irizten zaien baldintza jakin batzuk betetzen dituzten nekazariantzat bakarrik.</p>
HURA ONARTZEKO PREMIA ETA AUKERA	<p>Ordainketa zatikatuak egokitzea izan diren gertaerei.</p>
XEDEAK	<p>2017ko bigarren ordainketa zatikatua kentzea, baldintza jakin batzuk betez gero.</p>
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)	<p>Ordainketa zatikatua ez kentzea.</p>